



ARRIAGAKO SAN JUAN ERMITAN, IZAERA SOZIALA, HIRITARRA ETA ERLIJIOSOA DUTEN EKITALDIAK EGITEKO ZERBITZUA. TASA

2011ko urtarrilaren 1etik aurrera eta zehaztu gabeko indarraldiarekin, Arriagako San Juan Ermitan, izaera soziala, hiritarra eta erlijiosoa duten ekitaldiak egiteko zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen araudia onartzen da.

13/2010 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, Arabako Biltzar Nagusien 2011. urterako Aurrekontuari buruzkoa.

ALHAO 146 2010eko abenduaren 27koa

1. artikulua.- Xedea

Tasa horren helburua honako hau da: Arriagako San Juan Ermitan behin-behineko erabileraren lagapenaren zerbitzua eskaintzea, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoek eta juridikoek izaera soziala, hiritarra eta erlijiosoa duten ekitaldiak egin ditzaten, hala nola, ezkontzak, urteurreneko mezak, jaunartzeak eta antzerako ekitaldiak.

2. artikulua.- Zerga egitatea

1. artikuluan aipatutako ekitaldiak egiteko Arriagako San Juan Ermitan behin-behineko erabileraren lagapenaren tasaren zerga egitatea osatzen du.

3. artikulua.- Subjektu pasiboak

Tasa horren subjektu pasiboak ekitaldia egiteko eskatzen dutenak izango dira. Edonola ere, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoak eta juridikoak izango dira.

4. artikulua. Salbuespenak, hobariak eta murrizketak

Biltzar Nagusiek, Arabako Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek ez dute tasa hori ordaindu beharko.

5. artikulua.- Zerga kuota

Aplikatu den tarifa 181,23 eurokoa izango da ekitaldi bakoitzeko.

Oharra: zenbateko hori eguneratu egiten da Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Foru Arauen bitartez.



6. Artikulua. –Sortzapena

1. Ekitaldia egiteko eskaera egiten den momentuan tasa sortuko da.
2. Tasa autolikidazioaren bitartez ordainduko da ekitaldia egiteko dagokion eskaera aurkezterakoan, helburu horretarako egingo den ereduaren arabera. Eskaera ez da izapidetuko ez bada egiaztatzen kasuan kasuko ordainketa egin dela.
3. Eskaera egin eta gero eta ekitaldia egin aurretik, eskatzaileek ekitaldia ez egitea erabakitzen badute, sartutako zenbatekoaren ehuneko 50a itzuliko zaie.

7. artikulua.- Kudeaketa arauak

1. Ekitaldia egin nahi duten pertsonak honako agiriak aurkeztu beharko dituzte, ekitaldia egin nahi den eguna baino 30 egun lehenago gutxienez, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean, Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzura zuzenduta:

- Ermitaren erabilera eskatzen duten pertsonak sinatutako eskaera inprimakia, ekitaldiaren arduradunak diren pertsonen edo pertsonaren datu pertsonalak eta harremanetan jartzeko datuak adieraziz.
- Ekitaldiaren arduradun gisa adierazitako pertsonen NANaren fotokopia.
- Autolikidazioaren bitartez ordaindutako tasaren ordainketaren frogagiria.

Xedapen Iragankorra

Ekitaldia egiteko eskakizuna araudi hau indarrean egon aurretik aurkeztu bada ez da tasa ordaindu beharko

IZAPIDETZEA

1º.- Harremanetan jarri Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzuekin, ikusteko zer egun eta ordu dauden libre.

945181797 – forualdunia-diputacionforal@araba.eus

2º - Eguna eta ordua zehaztu ondoren, eskabidea eta ordain gutuna hartuko dira Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzuan (Probintzia plaza z/g, Vitoria- Gasteiz).

3º. Arabako Foru Aldundiak ordainketa gutun bat igorriko du tasaren zenbatekoa adinakoa, eta, behin zenbateko hori ordaindu delako ordainagiria aurkeztutakoan, jakinarazi egingo da ermita hori adierazitako egunean erabiltzeko baimenaldi baterakoa.